



Zuiako Koadrilako EUSKARAREN ORRIA


14. alea 2011ko azaroa

Eta koadrilatik kanpora...

Orain dela bi urteko esperientziarekin gustura, **Arabako II. Bertso-sorta kolektiboen lehiaketa** antolatu du, 2012rako, Arabako Bertsozale Elkartek. Lagun koadrila bat elkartu, denon artean bertso batzuk idatzi eta 2012ko otsailetik aurrera, Arabako kuadrilla arteko txapelketarekin modu paraleloan, kantatzeko aukera egongo da. Lehiaketaren oinarriak, izena emateko modua eta datu guztiak dituzue www.euskaraba.com webgunean.



URKABUSTAIZ



Bularretik Mintzora Hitzaldiak
Azaroaren 10ean, Udal liburutegian, 18:00etan
Juan Kruz Igerabide:
"Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura"

Azaroaren 17an, Udal liburutegian, 18:00etan
Juan Karlos Alonso: "Haur literaturaren garrantzia haurren garapenean"

ARAMAIO

Aramaioko produktuen azoka
Urriak 29, zapatua
Barazkiak, artisauak, erretiratuen bazkaria...

Txirritolaren partxis lehiaketa
Azaroak 11, barikua (San Martin eguna)
16:00etatik aurrera izena eman eta jokatzeko aukera



Bertxoko sariketaren FINALA
Azaroaren 25ean, Iturrieta sagardotegian
Saioa afalosteian izango da (afaria 20:30ean, saioa 22:30 inguruan). Prezioa: 20 €. Afarirako izena emateko, 23a baino lehen: 675707971 / araba.sustapena@bertsozale.com



Errezilgo emakumeen kooperatibara bisita
Azaroak 5, zapatua, 09:00etan frontoi aurrean
Izena emateko deitu.
945445016 (Udala)
625 706 374
larraaitor@hotmail.com
(Aitor)

"Euskaraz hitz egitea ekologikoagoa da"
"Egia izateaz gain, esatea, zabaltea, gizarteratzea, komeni zaigun ideia dela aholkatu dit nire lagun biologo batek. Biologia izateaz gain, euskaltzalea ere bada lagun hori eta bere pentsamenduan sarri bururatzen omen zaio espezien biziraupena azaltzeko erabili ohi diren kontzeptu askok (biodibertsitatea, habitata, ekosistemak, ekologia, jasangarritasuna, ingurumena...) hizkuntzen biziraupena esplikatzeke ere balio dutela. Alegia, "espezie" hitza jartzen den tokian "hizkuntza" jarri eta oso azalpen zentzudunak osatzen dituela..."
Iñaki Arruti, Lasarte-Oriako euskara teknikaria. Iturria: erabili.com


ZUIA



Kontu kantoi
Azaroak 2, asteazkena. Liburutegian
2 saio: 17:30ean 3-6 urtekoentzako, eta 18:00ean 7-12 urtekoentzako

Magia tailerra (Asier Kidam)
Azaroak 10, osteguna. Liburutegian
20:00etatik aurrera. 14 urtetik gorakoentzatz

Amaru taldea: antzerkia
Azaroak 17, osteguna



Apaizac Obeto, Jon Maiaren eskutik
Azaroak 21, astelehena
20:00etan udaletxean
Ternuara egindako bidaiaren kronika eta dokumentalaren emanaldia



LEGUTIO

"Artea... Irakurtzen ikasten dut"
Azaroaren 7tik 11ra liburutegian
3-5 urte artekoentzako
"Artea ezagutuz"
Azaroaren 7tik 11ra ludotekan
6-12 urte artekoentzako



Geure Gernika
Azaroaren 22an, liburutegian
Oroimen historikoaren astearen barruan, Picassoren koadroaren azalpena eta txikien bertsioa.

Txiki txef
Azaroaren 28an, ludotekan

Klik!

Aditzak.com

Teknologiaren aurrerape-nak ez dauka deskantsurik... Ezta euskara kontuetan ere! Euskal aditzak buruhauste franko eman dizkio bati baino gehiagori, izan euskara ikasle, edo besterik gabe, euskaldun... Tresna honekin, pare bat klik eginda ikus dezakezu euskal aditza jokatzeko taula osoa:

<http://aditzak.com/>

